



IRAKI BOTATA PASAITU!



KALEZ KALE LIGATZEKO ASMOZ

LIGATZEA: nola, non, norekin, zertarako... lantegi honetan parte-hartzaileek sentimenduzko harremanen inguruan dituzten estereotipoak gainditzen saiatuko gara. Estereotipo hauek identifikatuko ditugu eta haien inguruko hausnarketa bultzatuko dugu, noraino diren zail edo errazak eta zein jarrerekin (egokiak edo ez) lotzen diren eztabaidatuz.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko hausnarketa sustatzea. • Berdintasunaren, genero berdintasunaren eta harreman personalen inguruan heztea. • Gazteen jardunean praktika egokiak bultzatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea. • Eztabaidak eta azterketa. • Ideia-eskemak. • Betiko leloen identifikazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 14 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 saio: 2h/s.

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:





2007ko urtarrileko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpreses* Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. KALEZ KALE LIGATZEKO ASMOZ

Gazteen buruan denbora gehien hartzen duen gauzetariko bat da ligatzea. Inguruan dituztenak ezagutzeko modua da eta era berean, haien bizitzan zein gorputzean gertatzen diren aldaketak esperimentatzeko bidea.

LIGATZEA: nola, non, norekin, zertarako... Lantegian adin honetan gai honen inguruan dauden estereotipoak ahazten saiatuko gara eta ligatzeko moduen eta zergatien inguruko hausnarketa sustatuko dugu.

Orokorrean, ligatzea onartzen den jarduera da. Gaiaren inguruan hitz eginez eta gazteek euren esperientziak konta ditzaten utziz soilik lortuko dugu amodio-kontuetara hurbiltzeko dituzten moduak birplanteatzea.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpreses* lantegien helburu orokorrak:

- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Talde-lana sustatzea.
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea.
- Nerabeen interesak eta kezak ezagutzea.
- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.

PKTexpreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.




Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako azken edukiak.

Jaits ezazu *PKTenteres* 44.zbk. (2007ko urtarrila)
www.vitoria-gasteiz.org/pktenteres



Kalez kale ligatzeko asmoz lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Gazteek egiten dituzten gauzak zuzenean ezagutzea.
- Haien jardunean praktika egokiak sustatzea.
- Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko hausnarketa bultzatzea.



Arauk. Erretratuak horman.

“ligatzea prozesua da, atsegin duzun pertsona ezagutzen duzun momentuan hasi eta harremana hasten denean (bikote egiten zaretenean) bukatzen dena”

Lantegian adostutako definizioa.

3. EDUKIAK

Landu beharreko gaiak ondoko galdera hauetatik atera dira:

Zer? Ligatzearen esanahia.

Nola? Ligatzearen inguruko moduak eta jarrerak.

Norekin? Gazteen bikote-idealak.

Non? Inguruaren azterketa.

Zertarako? Zergatik nahi dugu edo behar dugu ligatu?

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, analitikoa eta sortzailea izango da. Lantegia eta saiok 5 galderen inguruan egituratuko ditugu: zer, nola, non, norekin eta zertarako. 5 galdera hauek izango dira lantegiaren hezurdura eta jardueren oinarri.

Ezagutza-ekintzak

Eztabaidak

Brain-storming dinamikak.

Denen arteko elkartrukea

Idea-eskemak

Betiko leloen identifikazioa

Postontzi anonimoa

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 30 lagun

Adina: 15 – 16 urte


Sexua: Talde mistoa

Lantaldea Ariznabarrako Gazte Klubeko erabiltzaileek osatzen dute. Zenbait jatorritako gazteak dira eta klubera joateko ohitura baduten arren, inoiz ez dira modu berean joaten. Erabiltzaile bakoitza bere erara.



OHARRA:

Parte-hartzaileen artean errespetu falta nabariak ikusi ditugu eta araudi bat sortzeko beharra izan dugu. Errespetu-arauen orria denen begien-bistan egongo da denbora guztian.



Mutil idealaren Frankenstein-a.

Komunikabideek eta publizitateak sortutako estereotipoen erabilera oso argi geratzen da, batez ere mutilek deskribatutako bikote-idealean.



Neska idealaren Frankenstein-a.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2006ko abenduko 4 egun.

Abenduak 13.....2.30 h (18:00-20:30h).

Abenduak 15.....2.30 h (18:00-20:30h).

Abenduak 19.....2.30 h (18:00-20:30h).

Abenduak 21.....1.00 h (18:00-19:00h).

PKTenteres aldizkaria argitaratu ondoren, hausnarketarako azken saioa egingo dugu urtarrilaren 10ean.

7. KOKAPENA

Ariznabarrako gizarte etxean dagoen Gazte Klubaren egoitza.

8. MATERIALA

Materiala:

- Bulegoko materiala (folioak, errotuladoreak, zinta itsasgarria, kartoi meheak).
- Hiriko mapa handi bat.
- "Frankenstein"-en siluetarekin marraztutako kartoi meheak.
- Hiriko kale-izendegia
- Hiriko mapa txiki bana
- Postit-ak
- Ideien postontzia
- Ebaluazio-inkestak

Azpiegiturak:

- Gela bat, aulkiak eta lanerako mahaia.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...)
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa)
- Harreman eta enpatia maila
- Taldearen harreman pertsonalak
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna
- Sormen-gaitasuna
- Taldearen espiritu kritikoa eta autokritikoaren maila
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



Lantegiko ideien behin betiko eskema.

10. LAN-ERANSKINAK


Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa

4eranskina: 4. saioa



Brain-storming-aren behin betiko eskemak.

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko **hausnarketa sustatzea**.
Gazteen jardunean **praktika egokiak bultzatzea**.
Berdintasunean, **genero** kontuetan eta **harreman pertsonaletan** hezteak.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKTexpreses.	PKTenteres.
10 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> .	Bulegoko materiala: boligrafoak errotuladoreak guraizeak folioak
15 min.	Ezagutza-jarduera: Erretratua.	Parte-hartzaileen ezaugarriak. Postontzia.	zinta itsasgarria kartoi meheak
30 min.	Braimstormig-a.	Ligatzeko metodoak. Hutsezinezko metodoak.	
35 min.	Idea positiboak.	Ligatzeko metodoak .	
20 min.	Ondorioak. Postontzia.		Ideien postontzia.

PKTaren aurkezpena----- **10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu ----- **10 min.**
Lantegia azaldu: "Kalez kale ligatzeko asmoz". Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Ezagutza-jarduerak----- **15 min.**
Erretratua:
Binaka jarrita, aurrekoaren erretratua egin behar da aurpegira begiratzuz eta marrazkia begiratu gabe. Ondoren, erretratua dagokion pertsonari emango zaio. Txandaka bikotea aldatuko da taldea guztia osatu eta partaide bakoitzak gainontzekoek egin dizkieten erretratu guztiak izan arte.
Bakoitzak egin dizkieten erretratu guztien artean bat aukeratuko du eta jarduerak eragiten dion gogo-aldarte definitzen duen hitza idatziko du. Erretratu guztiak txandaka jarriko dira horma batean eta marrazkiaren eta aukeratutako hitzaren zergatia azalduko da.

Braimstorming-a----- **30 min.**
Lehen galderarekin (nola?) gazteek ligatzeko erabiltzen dituzten hutsezinezko metodoak ezagutu nahi ditugu eta bide batez, momentu hauei aurre egitean bakoitzak hartzen dituen rolak identifikatuko ditugu.
Denen artean ligatzeko moduen eta metodoen inguruko ideia-zaparrada egingo dugu. Braimstorming hau abiapuntu hartuta, ligatzeko hutsezinezko metodoa zein den definituko dugu eta bakoitzak ligatzearen inguruan dituen aurreiritziak agertuko dira.

Idea positiboak----- **35 min.**
Brainstorming dinamikarekin jarraituko dugu, beti ere modu positiboan. Hau da, ideia guztiak onak dira eta ideia berri osagarriekin bakarrik hobetuko ditugu.
Mahaiaren inguruan eserita, partaide bakoitzak bere metodoa idatziko du paperean eta eskuineko lagunari emango dio. Parte-hartzaileek jasotako ideia bakoitza ezaugarri edo xehetasun osagarriak proposatuz hobetzeko eginkizuna izango dute. Ideiek zirkulua osatzen dutenean, taldean aztertu, haien arteko berdintasunak bilatu eta ligatzeko hutsezinezko metodoaren ezaugarriak aterako dira.

**Ondorioak**-----**20 min.**

Ondorio eta ideia guztiak kartoi mehe batean idatziko dira eskema modura.

Postontzia

Jarduera guztiak egiten diren bitartean, postontzia erabiltzeko aukera izango dugu. Bertan partaide guztiak haien mezu anonimoak idazteko aukera izango dute, "nola", "norekin", "zertarako" galderari modu aktiboan erantzunez.

Lantegiko azken saioan postontzia irekiko dugu eta mezuak eta iruzkinak irakurriko ditugu.



2. SAIOA

HELBURUAK

Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko **hausnarketa sustatzea**.
Gazteen jardunean **praktika egokiak bultzatzea**.
Berdintasunean, **genero** kontuetan eta **harreman pertsonaletan** hezteak.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15min.	Ongietorria.	Pertsonalak.	Bulegoko materiala:
30 min.	Ligatzearen definizioa komunean jarri.	Ligatzearen definizioa. Zer da ligatzea?	boligrafoak errotuladoreak guraizeak folioak zinta itsasgarria
30 min.	Norberaren ohiko lekuak mapan identifikatu.	Ingurunea. Ligatzeko ohiko lekuak. Taldearen betiko leloak.	Hiriko kale-izendegia. Gasteizko mapa txikiak.
45 min.	Mapan denen ibilbideak komunean jarriko ditugu eta ondoren, eztabaida.		Gasteizko mapa handia.

Ongietorria-----15 min.

Saioaren lehen minutuak konfiantza-giroa sortzeko erabiliko ditugu. Horretarako astean zehar gertatutako anekdotaren bat kontatuko dugu parte-hartzaile guztiak iritsi bitartean.

Ligatzearen definizioa komunean jarri-----35 min.

Taldeak ligatzearen definizioak (“zer da ligatzea?”) komunean jarriko ditu definizio komun batzuk ateratzeko. Lanean jarraitu ahal izateko gai honen inguruan oinarri batzuk ezartzea komeni da. Hasiera batean, “ligatzea” denentzat gauza bera dela pentsatu dezakegu, baina lan egin ahal izateko, adostutako abiapuntu batera iritsi beharko dugu.

Norberaren ohiko lekuak mapan identifikatu -----50 min.

Ligatzeko parte hartzaileen ohiko lekuak aztertuko ditugu. Horretarako, Gasteizko mapak erabiliko ditugu eta bertan, bakoitzak bere etxea, neska/mutilak ikustera joateko lekuak, bikotearekin lasai egoteko lekuak, ligatzera ateratzen direnean egiten dituzten ibilbideak eta ekintzan zehar ateratzen diren gainontzeko lekuak kokatuko ditugu.

Mapan ibilbide guztiak komunean jarri eta ondoren, eztabaida-----50 min.

Mapa guztiak bukatu ditugunean, bakoitzaren mapak jasotzen dituen mapa komun bat egingo dugu. Mapa komun horretan, taldeak nahi dituen leku guztiak markatuko eta eztabaidatuko dira.



3. SAIOA

HELBURUAK

Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko **hausnarketa sustatzea**.
Gazteen jardunean **praktika egokiak bultzatzea**.
Berdintasunean, **genero kontuetan eta harreman pertsonaletan hezte**a.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria.	Pertsonalak.	“Frankenstein”-en siluetaekin marraztutako kartoi meheak.
60 min.	Neska eta mutil idealen identifikazioa.	Generoa. Gizarteko estereotipo eta idealak.	Errotuladoreak eta boligrafoak
45 min.	Komunean jarri.	Komunikabideen eta publizitatearen estereotipoak.	Folioak

Ongietorria-----45 min.

Saioaren lehen minutuak konfiantza-giroa sortzeko erabiliko ditugu. Horretarako astean zehar gertatutako anekdotaren bat kontatuko dugu parte-hartzaile guztiak iritsi bitartean.

Neska eta mutil idealen identifikazioa-----60 min.

Bi taula handietan marraztutako giza itxurako bi silueteekin lan egingo dugu. Txandaka, silueta horiek “frankenstein” erara, pertsona idealek izan beharko lituzketen ezaugarriekin betetzen dira.

Komunean jarri-----45 min.

Denen artean pertsona-ideal bakoitzaren (mutila zein neska) ezaugarriak eztabaidatu eta komunean jarriko ditugu. Neskaren eta mutilaren ezaugarriak eztabaidatuko ditugu. Desberdintasunak agerian jarriko ditugu eta ideal hauen zergatiaz hausnarketa egingo dugu.



4. SAIOA

HELBURUAK

Ligatzearen eta ligatzeko moduen inguruko **hausnarketa sustatzea**.
Gazteen jardunean **praktika egokiak bultzatzea**.
Berdintasunean, **genero** kontuetan eta **harreman pertsonaletan** hezteak.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria.	Pertsonalak.	Sortutako material guztia.
40 min.	Lantegiko galderen laburpen-taula. Postontzia.	Saio guztietan landutako gai guztiak.	Boligrafoak. Inkestak.
50 min.	Azken galderari erantzun “zertarako?”	Beharrak eta ametsak.	Kartoi mehe handia Errotuladore lodiak.
15 min.	Ebaluazioa. Inkestak.	Iritziak.	Inkestak.

Ongietorria-----15 min.

Saioaren lehen minutuak konfiantza-giroa sortzeko erabiliko ditugu. Horretarako astean zehar gertatutako anekdotaren bat kontatuko dugu parte-hartzaile guztiak iritsi bitartean.

Lantegiko galderen laburpen-taula-----40 min.

Denen artean lantegian landutako galderen laburpen-taula egingo da eta azken galderarekin osatuko da, “zertarako?”. Azken galdera hau oso interesgarria iruditzen zaigu nerabeen beharrak eta helburuak agerian jar baititzake.

Postontzia

Postontzia irekitzeko unea da. Hemen aurkituko ditugun ideia anonimoekin taula osatuko dugu.

Azken galderari erantzun “zertarako?” -----50 min.

Zertarako...

Zergatik nahi edo behar dugu ligatu?

Landutako galdera, eduki eta ondorio guztiak taulan ondo laburtuta ditugunean, azken galdera honi erantzuna ematen saiatuko gara, “zertarako?”. Parte-hartzaileek galdera honetatik ateratako ondorioak taula osatzeko erabiliko dituzte.

Saio honetan, gazteen etorkizuneko ametsak, nahiak edo hurrengo urteetarako itxaropenak ezagutzeko aukera izango dugu.

Ebaluazioa eta inkestak-----15 min.

Taldearekin batera lantegiaren ebaluazioa egingo dugu.